



Nazioarteko Trikitixa Jaialdian ariko dira gaur eskualdekoak

TOLOSALDEA ▶ Irma Karrerak eta Amets Arteagak,
Axier eta Oroitz Usainek, eta Leire Zumetak joko dute ▶ 6



Axier Unsainek eta Irma Karrerak ilusioz jaso zuten jaialdian parte hartzeko gonbita. N. LATABURU

VILLABONA ▶

Euskarazko web orriak diruz lagunduko ditu Udalak

Zabalik da eskaerak egiteko epea
udaletxean, azaroaren 18ra arte ▶ 5

ELENA IRIGOIEN ▶
GARAPEN AGENTEA

«Aholkularitza
eskaintzen
dugu ideietatik
hasiz»

CEDERNA-Garalur
Nafarroako mendialdeko
Garapen Agentzian
ari da Leitzaldean ▶ 7




Elena Irigoien. J. ASTIBIA

ALKIZA ▶

ENA Eguna antolatu du bihar Euskal Nortasuna Elkarteak

ENA egiteko aukera, hitzaldiak,
erakusketa, tailerrak... izango dira ▶ 5

OHARRA ▶



Ordua
aldatuko da gaur
gauean: 03:00etan
02:00ak izango dira

TOLOSA ▶

Seigarren denboraldia, lehenaren helburu eta ilusio berarekin

Bikain ari da Emakumezkoen Ligako
Tolosa, berriro iguera fasearen bila ▶ 4



2005-2006 Ligarako Tolosa taldea, ia osorik, Usabalen. I. ETXEBESTE

37. ABESBATZA LEHIAKETA ▶

Haurren txanda biharkoan

Haur Abesbatzak ariko dira bihar Usabal kirolgunean; 11:00etan hasiko da lehiaketa, eta Kanadako, Kataluniako, Txekiar Errepublikako, Hungariako eta Israelgo bost taldek hartuko dute parte bertan

I. ETXEBESTE - N. LATABURU

Urtero bezala, Haur Abesbatzek ere parte hartuko dute 37. Abesbatza Lehiaketan. Bihar izango da haien txanda, 11:00etan, Usabal kirolgunean. Aurtengoan bost abesbatza lehiatuko dira Haur Abesbatzen sailan: Kanadako Newfoundland Symphony Youth, Kataluniako Cor Infantil Sant Cugat, Txekia-ko Mibidizo, Hungariako Miraculum Children's Choir eta Israelgo Bat Kol Children's Choir. Arratsaldean, berri, 17:00etan, Usabalen, folklore eta polifonia sailetan lehiaketa honetan abesten duten abesbatzen saila izango da entzungai.

NEWFOUNDLAND SYMPHONY YOUTH

Jatorria. St. John's, Kanada.

Taldekidetza. 40 neska.

Zuzendaria. Susan Knight.

Haur abesbatzak. Haurren lehiaketan ariko dira.

Historia. 1992. urtean Susan Knightek eratu, 7 eta 8 urte bitarteko bere 220 abeslariak St. John's-ekoak eta inguruak dira, eta elkarren segidako bost abesbatzetan hezitzen dira. Abesbatzaren helburua bere kideen abesbatza bizitza eta kultur heziketa garatzea da, abesbatza bikaintasun artistikoa Terranova eta Labradorreko folklore aberatsaren zainketa-ekin lotuz eta bere aniztasun kulturala eta nazioarena ospatuz. Horrela, bere abeslari gazteak Terranovarentzat eta Labradorrentzat etorkizuneko liderrak izango dira. Munduko abesbatzarik gazteenetako bat bezala ezagutzen dute, nazio- eta nazioarteko lehiaketetan lehen sariak lortu dituzte, eta nazioarteko gonbidapen ugari eta garrantzitsuak jaso dituzte. 2001. urtean, Kanadako ordezkaria izan zen mundu guztiko



Hungariako Kecskemét hiriko Miraculum Children's Choir-ek eskainiko du emanaldia biharkoan Haurren Abesbatzen lehiaketan. HITZA



Israelgo Tel Aviv hiriko Bat Kol Children's Choir ere Haurren Abesbatzekin lehiatuko da biharkoan. HITZA

hiru abesbatza finalistetako bat bezala Londreseko *Let the peoples sing* ospetsuan parte hartzeko. 2003an, Amerikako Estatu Batuetako zuzendariaren batzarrean nazioarteko gonbidatu gisa abestu zuen.

Obrak.

- ▶ *Cantante Domino.*
- ▶ *The green shores of fogo.*
- ▶ *Zai itxoiten.*
- ▶ *Alami.*
- ▶ *Tjak.*

COR INFANTIL SANT CUGAT

Jatorria. San Cugat del Valles, Katalunia.

Taldekidetza. 40 neska.

Zuzendaria. Elisenda Carrasco.

Haur abesbatzak. Haurren lehiaketan ariko dira.

Historia. 1991. urtean eratu, nazio- eta nazioarteko ospe



37. Tolosako Abesbatza Lehiaketa

gizarte ekintza

kultura

Babesle Ofiziala

ezaguneko talde baten gidaritza izan du. Gaur egun bi atal handitan banaturik dago: Haur Abesbatza bera eta Abesbatza Eskola. Honek, 15 abesbatza talde baino gehiagoren bidez, praktika hau Kataluniako leku desberdinetan zabaltzea ahalbidetu du. Proiektu honek 4 eta 18 urte bitarteko 500 abeslari baino gehiago hartzen ditu. Abesbatzak Katalunia osoan abestu du, bere geografiako eszenatoki handietatik pasatuz —Musikako Palaua, Lleida-ko Enric Granados Auditorioa, Vico-ko Atlantida antzokia, Olesako Teatro de la Passio, Sant Cugatoko auditorioa...—. Valentzian eta Euskal Herrian ere abestu dute. 1995. urtean bere nazioarteko proiektzioa hasten da, Lyongo La Cigalek gonbidatuta. 1996an Italian, Hungarian eta Kroazian. 1997. urtean Alemanian. 2003ko uztailean, Hugarian zehar bigarren bira. Eta, pasa den urrian, Quebec-eko abesbatza talde desberdinen gonbidapenari esker, Kanadan zehar bira bat egin zuen.

Obrak.

- ▶ *Zai itxovien.*
- ▶ *Jo Szanut, jo fejsze.*
- ▶ *Alami.*
- ▶ *Salve Regina.*
- ▶ *Jaakobin pojat.*

MIBIDIZO

Jatorria. Valasske Mezirici, Txekia.
Taldekieideak. 35 neska eta 5 mutil.
Zuzendaria. Eva Jezikova.
Haur abesbatzak. Haurren lehiaketan ariko dira.
Historia. Abesbatza orain dela 12 urte eratu zen Valasske Meziriciko Arteko Lehen Hezkuntzako eskolan. Mibidizko kontzertuetako abesbatzera iritsi aurretik haurrak prestaketarako beste abesbatza batzuetatik pasatzen dira. Gaur egun 40

abeslariz osaturik dago. Duela gutxi, abesbatza ez da bakarrik Arteko Lehen Hezkuntzako ordezkari izan, Valasske Meririciko udal talde osokoa baizik. Errenazimendutik gaurko musikaraino, garai eta estilo guztietako musika egitarau anitzak aurkezten ditu abesbatzak. Musika sakratutik musika profanoraino, txekiar musika herrikoia ere abesten dute. Txekiar musikagileen musika zabaltzeko interes handia dute. Bai Txekian baita atzerrian ere, jaialdi eta lehiaketa ugaritan parte hartu du. Novy Jicinen ospatutako haur abesbatzen lehiaketa nazionalan Txekia-ko abesbatza onenetako bezala izendatua izan zen. Abesbatza Eva Jezikova irakasleak zuzentzen du.

Obrak.

- ▶ *Alami.*
- ▶ *Lore izanezin.*
- ▶ *Ave Maria.*
- ▶ *Slunicko za hory zachazi.*
- ▶ *Po zahrade chodila.*
- ▶ *Blecha moucha.*
- ▶ *Vrabcak pista.*

MIRACULUM CHILDREN 'S CHOIR

Jatorria. Kecskemet, Hungaria.
Taldekieideak. 40 neska.
Zuzendaria. Laszlo Duranyik.
Haur abesbatzak. Haurren lehiaketan ariko dira.
Historia. 1950. urtean sortutako Kodaly eskola Hungarian lehenengo eskola izan zen. Metodo hau martxan jartzeko garaian abesbatza musika oso garrantzitsua da. Miraculum abesbatza 1997. urtean eratu zen. 12 eta 15 urte bitarteko ikaslez osaturik dago. Hiriko bizitza kulturalan abesbatzak paper garrantzitsua izan nahi du; atzerrian ere jaialdi eta lehiaketetan partaidetzan zortzi lehen sari eskuratu ditu abesbatzak. Abesbatzaren

errepertorioa Errenazimendutik XX. mendeko musikaraino doa, baina Kodaly, Bartok, Bardos eta Kocsarren abesbatza lanei garrantzi berezia eskaintzen diete.

Obrak.

- ▶ *Alami.*
- ▶ *Dragoi bakartia* (Josu Elberdin, 1976).
- ▶ *Pueri hebraeorum.*
- ▶ *Salve Regina.*
- ▶ *A 150 genfi zsoltar.*
- ▶ *Daemon irrepit callidus* (Gyorgy Orban, 1947).

BAT KOL CHILDREN 'S CHOIR

Jatorria. Tel Aviv, Israel.
Taldekieideak. 35 neska.

Zuzendaria. Anat Morahg.
Haur abesbatzak. Haurren lehiaketan ariko dira.

Historia. Israello musika kontserbatorioko abesbatza da hau. 40 abeslari inguruz osatua. Israello gazte abesbatza liderretako bat da. Bertako eta nazioarteko jaialditan, telebista programetan, opera eta antzerki produktioetan eta baita publikotan ere parte hartzen dute maiz. Astean bi aldiz entseatzuten dute, eta elkarrekin abestuz gozatzaz gain, entzumen formazioan eta ahotsaren garapenean eta musika interpretazioan onura lortzea bilatzen du zuzendariak, besteak beste. Musika klasikoko egitarauak —Costeley, Pergolesi, Bach, Mozart, Mendelssohn, Faure, Bartok, Britten eta beste hainak—, Israello musika —Braun, Seter, Zorman...—, eta abesbatzarentzat bereziki idatzitakoak aurkezten du abesbatzak. 1984. urtean sortu zenetik Anat Morahg da taldearen zuzendaria.

Obrak.

- ▶ *Ixil ixilik dago.*
- ▶ *Tota pulchra es.*
- ▶ *A prayer for peace.*
- ▶ *Alami.*
- ▶ *Saperi Tama.*

Gaurko emanaldiei buruz



Suediako Maria Magdalena Motettkör-ek jardungo du gaur. HITZA

Musika erlijioso, folklore eta polifonia sailetan parte hartzen duten abesbatzek jardungo dute gaur 37. Abesbatza Lehiaketan: 11:00etan hasiko dira musika erlijiosoa interpretatuko duten abesbatzen saioak, 16:00etan eta 19:30ean folkloreakoak, eta 19:30ean polifonian lehiatuko direnak.

Musika erlijiosoari dago-kionean, honakoak dira lehiaketarako aurkeztu diren taldeak: Alemaniako Leipzig hiriko Calmus Ensemble, Bielorrusiako Minsk-eko Radzivil, Letoniako Riga hiriko Yellow Case, Zelanda Berriko Wellington hiriko The Tudor Consort, Suediako hiriburuko Maria Vokalensemble eta Venezuelako Maracaribo hiriko Coro Antiphona. Atzo eman zuen Hitzak ahots talde horien berri, eta gainerakoen inguruan jardungo du orain.

Folklore sailean, Argentina-ko San Juan hiriko Coro Universitario de San Juan abesbatzakoei —Guillermo Raul Tesoneren zuzendaritzapean, 21 emakumezko eta 19 gizon-ekozko osatutako ahots nahasi- en taldea da— eta Suediako

Örebro hiriko Coro de camara de Örebro taldekoek —Fred Sjöberg da zuzendaria, eta 20 emakumezko eta 16 gizon-ekozko osatutako ahots nahasi- en taldea da— eskainiko dute emanaldia gaur 16:00etan, eta Danimarkako Aalborg hiriko Coro Misto —S'ren Birch zuzendari lanetan aritzen da, eta bere aginduetara abesten dute 14 emakumezko eta 13 gizon-ekozko— eta Suediako hiriburuko Maria Magdalena Motettkör —Ragnar Bohlin zuzendariaren aginduetara jardungo dute 20 emakume eta 18 gizon-ekozko— taldeek 19:30ean. Polifonian, berriz, 16:00etan ariko dira Coro Mistokoak eta Maria Magdalena Motettkör taldekoak, eta 19:30ean Poloniako Varsovia-ko Coro Universitario de Varsovia taldekoak —Irina Bogdanovitch zuzendariaren gidaritzapean kantatuko dute 22 emakumezko eta 18 gizon-ekozko— eta Coro de Camara de Örebro taldekoak.

Musika sakratuko sailean ariko diren ahots taldeek Santa Klarako elizan jardungo dute, goizean; gainerakoek, Usabalen, arratsaldean. ◀

hitza

lagunen txokoa

HITZAREN HARPIDEDUN TXARTELAREKIN %5*-eko BEHERAPENA izango duzuzure EROSKETETAN

*Promozio hau ez da beste beherapenei gehituko eta eskura ordaindutako erosketetan bakarrik aplikatuko da

Txartela HITZAREN harpidedun ordaintzaileek bakarrik eskuratuko dute; deitu 943 30 43 46 telefono zenbakira

Egin zaitez harpidedun!

DENDA HAUEK HITZA-REN LAGUNTAILEAK DIRA

Avalon
o s a g a i a k
korreo, 11 • Tolosa • Tel.: 943 67 51 02

honekin
TOLOSA
Tel.: 943 67 22 44

kanikak
San Frantzisko, 21 • Tolosa
Tel.: 945 65 27 46

Gudari kalea, 5 • TOLOSA
Tel.: 943 65 04 62

ILUMINAZIOA

SHANTI KIROLAK
Rondilla, 11
TOLOSA
Tel.: 943 67 40 74

MUGAR
Nafarroa etorb. 16 • TOLOSA
Tel.: 943 65 56 85

LIZARRIBAR
OINETAKOAK
Arostegieta kalean
TOLOSA

Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZAREN harpidedun ordaintzaileen artean zozketak astero

FUTBOLA ▶



Tolosa CF osatzen duten neskek igoera fasea jokatzeko dute xede. Hogeita bost jokalarik daude taldean; batzuk falta dira argazkian. I. ETXEBESTE

Baloia dantzazten

Seigarren denboraldia du Tolosa CF nesken taldeak aurtengoarekin, eta hasierako helburu bera dute jokalariek: ondo pasatzea eta jokoan hobetzea

IRATXE ETXEBESTE

Bat, bi, hiru, lau, bost eta sei. Seigarren denboraldia du Tolosa CF nesken taldeak Emakumezkoen Ligan, eta hastapen hartatik gaur egunera arte gauza asko aldatu badira ere, hasierako helburu bera dute taldekideek aurtengoan: entrenamenduetan ondo pasatzea eta jokoan hobetuz joatea. «Hortik aurrera, garaipenak-eta etortzen badira, askoz hobe», esan du taldeko entrenatzaile Iñaki Mujikak.

Harekin batera du Tolosa CF taldearen gidaritzatza Iñaki Orejak, eta bien artean hogeita bost neska gazte prestatzen ahalegintzen dira astero-astero Usabal kirol eta aisialdi gune berriko zelairan. Orain arte Eskolapioetan, Illarramendi frontoian eta «ahal zen lekue-tan» aritu dira entrenatzen, eta Usabalera pasatu izana «aldaketa handia» izan dela aitortu dute, bestek beste, «erosotasun handia ematen duelako beti leku jakin batean jarduteko aukera izateak».

Astean hirutan elkartzen dira Tolosa CFkoak Usabalen. Astelehenetan eta asteazkene-tan denak joaten dira lan saio-etara, eta ostiraletan «fitxa dugunak baino ez». Izan ere, 25 jokalarietatik 19k soilik dute partiduetan zelaira ateratzeko



Lan saioetako batean, neskek entrenatzaileen aginduei adi. I. ETXEBESTE

parada, horretarako ezinbestekoa delako 14 urte beteta izatea. Hori dela eta, adin tarte jakin bateko neskek jokatzeko aukera gutxi dituztela salatu dute Tolosa CFkoek: «Eskolarteko txapelketetan jarduteko adina behin pasatuta, eta 14 urte izan arte, bada tarte bat neskek inon jokatzeko aukerarik ez dutena, eta hori ez da gertatzen mutilen kasuan, haiek badutelako aukera txikitik maila eta txapelketa ezberdinetan aritzeko».

Adin ezberdinekoak dira taldean dauden neskek: 12 eta 26 urte artean dituzte jokalariek, eta entrenatzaileek diote gehienak nerabeak izateak «eragin» egiten duela taldean. Due-

la sei urtetik hona bi baino ez dira, hala ere, Tolosa CFn jokatzen jarraitzen dutenak. «Gainerakoek utzi egin dute taldea, eta berriak sartzen joan dira».

Igoera fasearen bila, berriro

Denboraldiari ekin ziotenetik bikain ari dira Orejaren eta Mujikaren neskek. Jokatuako partiduetatik gehienak irabazita, maila ona erakusten ari direla onartzen dute. Modu horretara jarraitzea behar-beharrezko dute aurrerantzean ere, igoera fasea jokatzeko nahi bardute ezin dutelako norgehiagoketan huts egin.

Iaz jokatu zuten lehendabiziko, eta aurtengoan ere horixe

dute xede. «Igoera faserako sailkatzea ez dugu zalantzan jartzen: lortu egin behar dugu, derrigor», esan du taldeko jokalarik Leire Alonsok. Talde bakoitzeko onenekin lehiatzea «esperientzia ikaragarria» izan zela argudiatuta, ligaxkan jarduten duten eta igoera fasea jokatzeko duten taldeen artean «alde handia» nabaritzen dela diote mailari dagokionean.

«Igoera faserako sailkatzen diren taldeen artean bat baino ez da mailaz igotzen, eta hori lortzea ia ezinezkoa da», azaldu dute, bestalde, Tolosa CFkoek. Etsitzeko asmorik, baina, ez dute, eta futboleko aritzea gustuko dutelako, saiakera, behinik behin, egingo omen dute.

Talde sendoa da Tolosa CF, eta hasieran ez bezala, jokalarik mordoia ditu gaur egun. Hala ere, «futbol handian jokatzeko gustuko dutenei probatzeraz etor daitezten gonbita luzatu nahi diegu», diote ordezkariek. Baita artean 14 urte beteta ez dituztenei ere, agian, futbol 7-n jarduteko moduko talde txoa osa daitekeelako orain daudenen eta izena ematen duten jokalarik berrien artean. «Ligan jokatzeko ezaugarriak bete arte futboleko jokatzeko aukeraz izango dute neska gaztekoek modu horretara, eta nola-hala zelai handirako prestatzekoa ere bai», bide batez.

TALDEKIDEAK ▶

Hogeita bost neska gazte ari dira egun Tolosa CF taldean jokatzen. 12 eta 26 urte bitartekoak dira denak, eta horietatik hemeretzi baizik ez dute partiduko jokatzek: 14 urte beteta dituztenek, hain zuzen ere. Gainerakoek fitxarik ez, baina astero-astero joaten dira Usabalera zelaira entrenatzera. Etorkizunean bada ere, futboleko jokatzeko gogoia dutelako izan. Hauek dira, banan-banan, Tolosa CF nesken taldean jokatzen dutenen izenak eta postuak:

ATEZAINAK

- ▶ Maddi Izagirre.
- ▶ Oihane Cuenllas.

AURRELARIAK

- ▶ Lierni Garziarena.
- ▶ Irati Esteban.
- ▶ Lorena Iribarren.
- ▶ Irati Garro.
- ▶ Josune Cordero.

ERDILARIAK

- ▶ Olatz Artola.
- ▶ Amagoia Tolosa.
- ▶ Leire Arranz.
- ▶ Ainhoa Otermin.
- ▶ Ane Alonso.
- ▶ Ixiar Atxukarro.
- ▶ Izaskun Usabiaga.
- ▶ Aitziber Cid.
- ▶ Mireia Sarasola.
- ▶ Ane Artuba.

ATZELARIAK

- ▶ Ane Urkizu.
- ▶ Josune Ezkerra.
- ▶ Estibalitz Segurola.
- ▶ Ane Escalante.
- ▶ Ainhoa Morales.
- ▶ Leire Alonso.
- ▶ Xuue Rojo.
- ▶ Ainitze Labaien.

ENTRENATZAILEAK

- ▶ Iñaki Mujika.
- ▶ Iñaki Oreja.

DELEGATUA

- ▶ Sebastian Osinalde.

IÑAKI MUJIKAK

ENTRENATZAILEA

«Usabalera etortzea aldaketa handia izan da, erosotasun handia ematen duelako beti leku berean aritzeak»

LEIRE ALONSO

JOKALARIA

«Iaz aritu ginen lehenengoz, eta aurtun ez dugu zalantzan jartzen: igoera fasea jokatu behar dugu»

ALKIZA ▶ GIZARTEA

Euskal Nortasuna Elkarteak ENA Eguna antolatu du bihar

ENA egiteko aukeraz gain, hitzaldiak, erakusketa eta bestelakoak izango dira

IMANOL GARCIA

Euskal Nortasunaren Elkarteak ENA Eguna antolatu du biharko. Elkarte honen helburuak bi dira, nagusiki: euskal nortasunaren kontzientzia sakontzea eta ENA agiria egin, erabili eta bere ofizialtasuna lortzea. Zortzigarren urtea betetzen du aurten elkarte honek, eta lehenengo aldiz egingo dute ENA Eguna Gipuzkoan. «ENA ofizial egin duen udalerrietako bat delako, eta urtero herrialde ezberdin batean egingen dugulako», erantzun du Ur-tzi Ihiza elkarte lehendakariak ENA Eguna egiteko Alkiza aukeratzeko arrazoia galdetzean.

Biharko ekitaldiak 11:00etan hasiko dira, Euskaldunki konpartaren kalejirekin. Ordu berdinean egingo da harrera, adarra eta txalapartarekin.



Euskal Nortasuna Elkarteak argitaratutako zenbait libururik. HITZA

11:15ean, *Euskalduntasunaren unibertsaltasuna* hitzaldietabaida egingo dute Kultur Etxean; elkartearen lan ildoan sakontzeko baliatuko dute. Ondoren, Enrike Lopezek *ENAREN erabilera desobedientziaren ekintzatik* hitzaldia emango du. Azken bost urtetan ENA ba-

karririk erabili du Lopezek, eta izandako esperientzien berri emango du.

Euskal Nortasunaren Hiztegiaren aurkezpena egingo dute, 13:00etan. Hitzegian 230 hitz definitzen dituzte nortasunaren, herritartasunaren, auto-determinazioaren... inguruan.

Ondoren, bazkaria izango da Herriko Ostatuan, 15:00ak aldera. Bazkaldu ondoren, 17:00ak aldera, mikrofono librerako tartea izango da, hau da, «bakoitzak nahi duenari buruz hitz egiteko aukera», dio Ihitzak. 17:30ean bertsolarien saioa izango da eta, azkenik, 18:00ak aldera, ENAREN himnoa abestuko dute.

Bestalde, egun guztian ume-entzako hainbat tailer izango dira: marrazketa, buztina, eta txapak egiteko aukera. *Euskal Nortasuna* izeneko erakusketa ere ikusgai izango da. Eta, noski, ENA egiteko aukera izango da. Horretarako, antolatzaileek gogoratzen dute errolda agiria eta argazki bat eraman eta 11 euro ordaindu behar direla. Aldi berean, antolatzaileek eskualdeko herritar oro gonbidatzen dute biharko ENA Eguna parte hartzera.

ANOETA ▶

Batasunaren biltzarraren baitan batzarra egingo dute

Datorren larunbatean, 10:00etan hasita, izango da bilera udaletxean

ERREDAKZIOA

Herritarren Batasunak lau urtez behin ohikoa duen barne eztabaida prozesua abiatuko du, *Bidea eginez* izenpean, eta Batasunaren I. Nazio Biltzarra izango da. Biltzar honen barruan, bi batzar aurreikusten dira Anoetan. Aurrenekoa azaroaren 5ean, larunbata, 10:00etan izango da. Anoetako udaletxean. «Anoetar oro gonbidatu nahi dugu batzar hauetan parte hartzera eta bizi ditugun garai garrantzitsu hauetan, gatazkaren konponbidearen bidean, Batasunak jarraituko duen ildoaren inguruan hausnartu eta eztabaidatzea», azaldu dute egitasmo honen Anoetako bultzatzaileek.

Helburuak

Prozesu honen helburuak ondokoak dira: ahalik eta parte-hartze zabalena izatea, nazio eraikuntza eta eraldaketa sozialaren estrategia berritua aurkeztu eta eztabaidatzea, eta Batasunaren proiektu politikoa sendotzea.

«Ezker abertzale osoa prozesu honen partaide izatea da helburu. Horretarako oinarri sozialarekin harremanetan jarri gara, eta biltzar honetan jorratuko diren txostenak banatu ditugu», diote bultzatzaileek. Interesa duen norbaitek parte hartu nahiko balu eta ez badu txostenik jaso, bultzatzaileek berarekin harremanetan jartzeko eskatu dute.

VILLABONA ▶ EUSKARA

Udalak diruz lagunduko ditu euskarazko webguneak, hizkuntzak Interneten leku oparoa izan dezan

Eskaera egiteko udaletzeko Euskara Zerbitzura jo behar da azaroaren 18a baino lehen

ERREDAKZIOA

Villabonako Udaleko Euskara Zerbitzuak diru laguntza deialdia egin du webguneak euskaraz egingo dituzten herriko eragileentzat. Diru laguntza hauen bitartez Udalak sustatu nahi du «euskararentzat garrantzitsua den erabilera-esparru horretan leku oparoa

izan dezala bertako eta berezko hizkuntzak».

Diruz lagunduko dira lehenetik gaztelaniaz sortuta egonik webguneak euskaratzeko egitasmoak, edo euskaraz sortuko direnak. Webguneek edukia oso-osorik euskaraz izan behar dute, nahiz eta horrek ez duen eragozten webgunea beste hizkuntzetan ere izatea.

Eskaera egiteko unean webguneak egina egon behar du, Udalak ikuskatu ahal izateko.

Deialdiaren baldintzen arabera ez dira lagunduko webgune pertsonalak, ezta eduki iraingarriak dituztenak ere, edukietara iristeko edonolako mugak jartzen dituztenak, edota edozein herri erakunderi lotutako enpresa, talde, elkarte

eta abarretako guneak. Diru laguntza hauek jaso ahal izateko beharrezkoa da eskatzaileak egoitza fiskala eta soziala Villabonan izatea. Eskaera egiteko udaletzeko Euskara Zerbitzura jo behar da azaroaren 18a baino lehen. Bertan aurkituko dituzte interesatuek bai deialdiaren baldintzak eta baita eskaeria egiteko inprimakiak ere.



Udaltalde 21 Ernioaldeak

Herri Batzarrak ospatuko ditu datozen hilabeteetan herritar guztiek, Tokiko Agenda 21aren bitartez, parte har dezagun gure herriaren etorkizunean. Parte hartu ezazu. Zer esanik baduzu!!!

1. HERRI BATZARRAREN TOKIAK ETA DATAK

Aduna: azaroak 23an, udaletxean, 20:30ean

Anoeta: azaroak 29an, udaletxean, 19:30ean

Asteasu: azaroak 10ean, udaletxean, 19:30ean

Irura: azaroak 24an, udaletxean, 19:30ean

Hernialde: azaroan zehar bilduko da

Villabona: abenduak 1ean, udaletxean, 19:30ean

Zizurkil: azaroak 17an ordua eta lekua zehaztear dago

PARTAIDEAK:



KULTURA ▶

Eskualdeko hainbat musikari Nazioarteko Trikitixa Jaialdian

Karrera, Arteaga, Zumeta eta Axier eta Oroitz Unsain ariko dira ; gaur izango da, Kursaaletan, 19:00etatik aurrera



Eskualdeko hainbat trikitilari gazte ariko dira gaurko jaialdian. IMANOL OTEGI / ARGAZKI PRESS

IÑIGO TERRADILLOS

Urtero egiten den Nazioarteko Trikitixa Jaialdiak gaur izango du hitzordua Donostiako Kursaaletan. Donostiako Kursaaletan, 19:00etan. Euskal trikitilarien belaunaldi gaztea—eskualdeko hainbat trikitilari tartean—lanean ikusi eta lurralde desberdinetatik etorritako artisten musikaz gozatzeko parada izango da. Sustrai Colina eta Amets Arzallus bertsolariek aurkeztuko dute jaialdia, eta Euskal Herriko trikitilariak eta atzerriko txandaka joko dute, bina pieza bertakoek, eta hiruna kanpokoek. Ohikoa den moduan, omenaldi kutsua ere izango du, eta aurten ia mendebatean iraun duen Zumarragako Trikitixa izango dute gogoan.

Eskualdeko trikitilarien artean ondorengoak ariko dira: Irma Karrera tolosarrak eta Amets Arteaga baliarraindarrak osaturiko bikoteak lehen

txapela zizurkilen lortu zuten, eta geroztik hainbat plazatan aritu dira; Axier eta Oroitz Unsain tolosarrak hainbat txapel dituzte, baita pandero jole onenaren saria ere; Leire Zumeta anoetarrak Amaia Arza eta Eneritz Bengoetxea donostiarrekin eta Edurne Errandonea andoaindarrarekin ariko da laukotean, guztiak ere hainbat txapelketetan aritutakoak.

Xabier Etxaniz azkoitiarrak eta Ainara Saizar aiarrak osaturiko du Euskal herriko ordezkariak. Atzeritiko datozenak, berriz, Sardinia Totore Chesu soinu jotzailea eta Luigi Lai Launeddas jotzailea, Kataluniako Carles Beldak eta Elena Casasek osaturiko Pomada trikitixa taldea, Frantziako Marc Perrone akordeo diatoniko jotzailea eta Marie-Odile Chantran, eta, azkenik, Irlandako James Hogan hainbat tresnen jotzaile eta Dennis braken piano jolea izango dira.

AXIER UNSAIN ETA IRMA KARRERA ▶ TRIKITILARIAK

«Trikitixa indarberritzeko balio dute horrelako jaialdiek»

Axier Unsain bere anaia Oroitzekin ariko da, eta Irma Karrera Amets Arteagarekin. Biak ere gaurko jaialdian parte hartzeak duen esanahairen eta gaur egungo trikitixaren egoeraren inguruan aritu dira Hitzarekin solasean.

Nola hartu zenuten jaialdian parte hartzeko berria?

Oso berri ona izan zen. Euskal Herriko Trikitixa Txapelketako lehen hirurak eta maila handia erakutsi duten trikitilariak aukeratu dituzte jaialdirako. Zer eskainiko duzue?

Zerbait berezia eskaintzen saiatuko gara. Trikitixa, porrusalda eta pot-pourria joko ditugu.

Egun osoko festa izango da zuzenat, ezta?

Goizetik probak egingo ditugu. Bazkaria parte-hartzaile guztiarekin egingo dugu, eta jaialdiaren ondoren afarian bilduko gara denak berriro. Egun polita eta berezia izango da.

Hainbat txapelketetan parte hartu, eta makina bat sari eskuratu dituzue. Aurrerantze-

an, ordea, zailagoa izango duzue hori.

Gaurkoa bezalako jaialdi gehiago egitea gustatuko lizaitzuke. Trikitixa maila onean egon zen duela gutxi, eta orain asko jaitsi da. Horrelako jaialdiek indarberritzeko balio dute. Horretaz gain, txapelketa gehiago egin beharko litzuketela iruditzen zaigu, adin batek aurrera ezin duzulo ezer gehiago egin. Zeanurin egiten den 22 urte arteko txapelketa geratzen zaigu guri, izan ere, 18 urte beteak ditugu. ◀



NOELIA LATABURU

- ▶ hilberriak
- ▶ urteurrenak
- ▶ eskertzak

Gipuzkoan
50.000
etxetara

ESKELAK
19:00ak arte hartzen dira
Telf.: 943 65 56 95
tolosaldean@tolosaldeko-hitza.info

HITZA guztietan prezio beragatik

ELENA IRIGOIEN ▶ CEDERNA-GARALUR-EKO GARAPEN AGENTEA

«Ideia soiletatik hasiz sustatzaileei aholkularitza eskaintzen diegu»

Nafarroako Ipar-Mendebaldearen garapenerako, bertakoek dituzten egitasmoak laguntzeko dago

JAIONE ASTIBIA

CEDERNA-Garalur Nafarroako mendialdeko Garapen Agentzian lanean apirilean hasi bazen ere —hautespen frogetan berak atera zuen lanpostua, eta Leitzaz eta Areso gain, Goizueta, Araitz, Betelu, Larraun, Lekunberri, Basaburua, Imotz eta Ultzamako eskualdean jardunen du, Lekunberriko Udaleko langile izanez—, irailaren 26an egin zuten bere jendaurreko aurkezpena. Elena Irigoien da, eta aurrerantzean bera izanen da zerbitzu honetan gure eskualdeko agentea. Leitzaldean, jendearentzat arreta zerbitzurako ostegun eta ostiraletan egoten da. Hori bai, alde zuretik hitzordua eskatu behar da, 617 60 93 28ra deituta. Uhartear honi, urte eta erdi hutsik egon den zerbitzu honetan, «ia berri-berririk hastea» egokitu zaito.

Apirilean hasi zinen Garapen Agentzian. Zertan aritu zara? Lana ezagutzen. Urte eta erdi pasatu dituz zerbitzuak geldirik, eta bidean ziren proiektuak ere halaxe egon dira; horien berri jakindu eta nola zeuden ikusi dut, eta zain zeuden sustatzaileei bide ematen aritu naiz. Hogei bat-edo izan dira. Gero, udalerrietako alkate guztiekin egon naiz; herri bakoitzean martxan zituzten egitasmoen berri jasotzen, edo gerorako ideien bat baduten; edo gure zerbitzu honen berri ere ematen zenbait kasutan... Herriak ezagutzen ibili naiz, komunikazio, zerbitzu, garapen aldetik nola dauden.

Oso eremu zabala da zure ardurapean dagoena.

Bai, bost herri eta kontzejutan banatutako beste bost udalerriri. Herri asko dira, baina, gainera, oso desberdinak, arlo guztietan. Esate baterako, nik udaldira egiten dut lan batez ere, eta guztiak oso desberdinak dira, proiektu baten aurrean zenbatetaraino ausartzen

diren: batzuk segituan prest egoten dira, beste batzuk, berriz, babesa bilatu behar izaten dute aurrera, eta mantsuago doaz.

Udalek gain, norbanakoak ere etorriko dira. Zer eskualdetik etortzen da gehien?

Denetik etorri dira, nik uste. Baina gehien, beti, herri handietatik etortzen da; biztanleak ere gehiago izanik, sustatzaileak ere gehiago izatea normala da.

Garapen agentzia hau zer denba al daki jendeak, oro har?

Ez. 12 urte darama zerbitzu honek martxan, 1992an hasi zen, eta herriarrek ez dute ezagutzen. Harritu ninduen udalek ere, batzuk, ez ezagutzea izan zen; legealdi berria sartu zenez, laster agenterik gabe gelditu zen-eta zerbitzua. Azalpena eta aurkezpena ere horrexegatik egin genuen, batez ere.

Eta zer da, bada, CEDERNA-Garalur Garapen Agentzia?

Historia pixka bat eginez, Lana ezagutzen. 1992an Europatik Landa Garapenerako *Leader* Programa iritsi zen: landa eremuen garapenerako egitasmoak aurrera ateratzeko, eremu hauetatik bertatik diruz lagunduz egiteko bidea. Eta honetan ariko ziren taldeak sortu ziren; Nafarroan lau, bat aitatutako gure zonalde honetan ariko zena. Eta hasieran programa horretarako sortu ziren arren, gerora turismoa, teknologia berriak, enpleguaren sustapena eta beste arlo batzuk lantzen hasi zen. Hau guztia herrietara iristeko garapen agentziak eratu ziren.

Zer lan egiten duzue?

iragarki laburrak ▶

SALGAI Egurra. Su egur lehorra salgai. Pagoa eta haritza. 615 75 57 62 (arratsaldez). Furgoneta. Furgoneta salgai. Nissan Serena 95koa. 1,50eko ohearekin.	3.000 euro. 658 72 76 99. Ekonomika. Ekonomika salgai. Deville markakoa. 645 72 83 52 (21:00-22:00). Egurra. Su egur lehorra salgai. Pagoa.	943 68 30 41. LANA Iturgintza. Iturgintza, berokuntza eta gas lanetarako langilea behar da. Telefona: 656 41 68 08.
---	---	--



JAIONE ASTIBIA

Bi arlotan egiten dugu lan. Udalekin, Nafarroako Mendialdeko Sustapen Turistikoa egitasmoa ari gara lantzen, esate baterako, eta Areso hor sartuta dago. Ideiak baditugu, baina ez dago ezer zehazturik oraindik; Leitzan, berriz, Ifurristan saltzekoak dauden lau partzelen gainean, sustatzaileekin bile-rak egiten ari gara.

Beste arloa, norbanakoena.

Bai, sustatzaileekin egiten dugu lan, ideia baten edo egitasmo zehatzetan sustatzaileekin, promotoreekin. Norbaitek edozein moduko lantegi bati buruz ideia bat oso-oso orokorra izanda ere, ideia soil batetik abiatuta, guk aholkularitza eskaintzen diegu, beti. Ideia hori aurrera atera dadin aholkuak eman.

Zer modutako ideiak izan daitezke?

Oso gauza tikiak ere izan daitezke. Begira, enpresa bat zer izan litekeenari buruz dagoen irudipena ez da oso erreala. Ideia tiki batetik etorkizun oneko zerbait etor liteke zalan-tzarik gabe; enpresa edota bakoitzarentzat edo talde baten-tzat bizibide izan daitekeena,

«edozeinek» sor dezake: noski, ideiak zehaztu egin behar dira oso-oso ondo, lan asko egin behar da, baina horretarako badaude laguntzak. Bada dago jendea, jada ideiak eta egitasmoak oso landuta ditue-nean, honera etortzen dena, martxan hasteko diru laguntzen berri jakitera.

Eta zertan laguntzen diezue?

Guk aholkularitza lana egiten dugu. Egitasmoaren egikaritzean laguntza eskaintzen dugu, sustatzailea bakarrik ez sentitzeko: nora jo dezakeen, zer laguntza dauden... Batzuk dena landuta dutenean etortzen dira, pauso administrati-boen berri galdetzeraz; zenbait alditan gestioan ere laguntzen dugu, beharren arabera. Baina sustatzaileak bere buruaren jabe izan behar du arlo guztietan, autonomia: berak hartu behar ditu erabakiak, eta urratsak ere, berak eman behar ditu, batez ere merkatuan hala egonen delako, bakarrik. Guk enpresa martxan jartzen laguntzen dugu.

Jendarterako eskuartearen dituzue hainbat egitasmo.

Hala da. *Leader* +-ari dagokio-

nez, 2006an bukatuko da eska-riak egiteko epea; enpresen-tzat ez ezik natur baliabideak, ondare arkitektoniko eta kultu-ralak, babesteko udalen egi-tasmoak ere sartzen dira he-men. Aurrera begira, alde bati-tik *FH Proiektua* delakoa dugu eskuartearen ekimen berezien sustapenerako, oso egitasmo berezientzat aholkularitza lana egiteko lan tresna; bestetik, *Empleate* delakoa (*Enplega zaitez* izan daitekeena). Enple-gua lortzeko zailtasun gehien dituzten kolektiboentzat, ema-kumeak, gazteak eta etorki-nak, orden horretan landuko ditugu hemen, aholkularitza gain, formakuntza landuko dugu bereziki. Oso egitasmo egoki bezain interesgarria dela uste dut: enpresa sortzaile iza-tea gutxien pentsa dezaketenek posible dela ikusten dute, eta egin. Hau hazia ereitea be-zala da.

ARAMBURU
Salgai (Tolosa). Pisu igojalluarekin Larramendi kalean 112m2. Bista zoragarriak.
Salgai (Tolosa). Pisu Belate Ibilokian. Bista zoragarriak, sartzeko moduan.
Salgai (Tolosa). Lokal komertzialak Nagusia kalean eta Belate ibilokian.
Salgai (Ibarra). Pisu San Inazio auzoan. Guztin berriua, 244,000 euro.
Salgai (Tolosa). Pisu San Frantziskoa, 126m2. Garajearekin.
Salgai (Tolasalde). Garajeak Ieku ezberdinetan: Ibarra, Babiller Zaldibia kalean, Plaza zaharra...
Alokatzeko (Tolosa). Lokal komertziala Erremontari kalean.
Alokatzeko (Tolosa). Garajea P. de Tolosa kalean, Araba Etorbidetan, B. Zaldibia.
943 65 17 13 / 677 46 09 16



AGENDA ▶

37. ABESBATZA LEHIAKETA

Tolosa. 11:00etan, Santa Klara elizan, ahots taldeen kantaldia musika sakratuko sailean. 16:00etan eta 19:30ean, Usabal kirolgunean, folklore eta polifonia sailetako saioak.

ANTZERKIA

Orexa. Lakrikun taldearen *Greban gaude* antzezlan. 22:30ean. Kultur Hamabostaldiaren baitan.

DEIALDIAK

Alegia. 1956-1957an Alegian jaio edo bizi direnen afaria hilaren 12an. Izena emateko 40 euro sartu 2101 0073 16 0124706508an, azaroaren 3a baino lehen.

Alkiza. ENA Eguna, bihar. 11:00etan, Euskaldunki konpartsa kalejira; harrera, adarra eta txalapartekin; 11:15ean, *Euskalduntasunaren unibertsaltasuna* hitzaldi-etzabaida; 13:00etan, Euskal Nortasun Hitzegiaren aurkezpena.

Belauntza. Jubilatuta Eguna, bihar. 12:00etan, meza; ondoren, toka txapelketa; 14:00etan, bazkaria eta oparien banaketa; giroa alaitzen, bertsolariak eta trikitilariak.

Berastegi. Herriko txokoak gaitzat hartuta Argazki Rallya izango da azaroaren 1ean. 09:00etan banatuko dira argazki filmak plazan, eta 19:00etan itzuli egin behar dira. Erakusketa eta sari banaketa azaroaren 27an izango da, Kultur Astearen barruan.

Leitza. *Militarrak kanpora, Alde hemendik! Utzi Euskal Herria pakean* lelopean, manifestazioa. Bihar, 12:30ean, plazatik aterata.

Orexa. Uitzit-Orexa ibilaldia, bihar, 10:00etan; 14:00etan, herri bazkaria, trikitilariak alaituta. Kultur Hamabostaldiaren baitan.

Tolosa. Ekuatore Gineako jardunaldien barruan, Gineako plater tipikoen dastaketa eta artisau lanen erakustaldia. 11:00etatik aurrera, Kultur Etxean. 21:00etan, herri afaria, Abastosen. 23:00etan, Sahara azpiko Afrikako kantu tradizionalen kontzertua: Pina Bessosa, Niña Bessosa eta Jenny Bessosa; Eu Mekobo, Nuria eta Herminia; eta Judit, Joaquin, Liberato, Maialen eta Layan dantzariak ariko dira ikuskizunean.

Tolosa. Gerontologikoaren aldeko plataformak balkoietan zintzilikatzeko banderolak banatuko ditu, 11:00etatik aurrera, Trianguloan.

Tolosa. Ttentteko begirale izandakoei bilerarako deia egiten die taldeak. Asteartean izango da, 19:30ean, San Frantziskoko lokaletan. 25. urteurrena dela-eta egingo dituzten ekintzak izango dituzte hizpide bertan.

Tolosa. Telleria abizena dutenek beren festa izango dute azaroaren 6an Liernian. Izen-ematea, 675 71 03 44 telefono zenbakian.

Tolosa. 1940. urtean jaiotakoek bazkaria egingo dute azaroaren 19an. Izen-ematea, 943 65 41 05 eta 943 65 46 49 telefono zenbakietan.

Villabona. Webguneak euskaraz egiteko diru laguntza emango du Udalak. Eskariak egiteko epea azaroaren 18a arte, udaletxeko Euskara zerbitzuan.

ERAKUSKETAK

Alegia. Txaro Medranoren margolanak. Hilaren amaierara arte ikusgai, Jubilatuen tabernan.

Hernalde. Pakita Barreroren olio-pinturak, Ostatuan.

Ibarra. Sanbartolomeetako argazki erakusketa. Azaroaren 4a bitarte, Benito Izagirre kultur etxean.

Larraul. Laura San Juanen *zen* margolanen erakusketa. Hilaren

amaierara arte ikusgai, Herri Ostatuan.

Tolosa. *Ipuinartean I* egitasmoaren erakusketa. Azaroaren 5a arte, Aranburu Jauregian.

Tolosa. Hector Lunaren artelanak Lanbroa tabernan ikus daitezke.

Tolosa. Mari Carmen Azaldegik jarritako erakusketa, Fronton kafetegian.

JAIAK

Tolosa (Olarraín auzoa). 21:00etan, auzokideen arteko afaria; afal ostean, dantza saioa

Aiora eta Maitane trikitilariak alaituta.

ZINEMA

Leitza. *Tapas.* Bihar, 19:30ean, zinema aretoan.
Villabona. *Heroe a rayas* filma. Bihar, 17:00etan, Gurea zinema aretoan. Gaztelaniaz. Sarrera, 2,5 euro.

GUARDIAKO FARMAZIAK

Gaur
Leitza. Larraia M. I. Elbarren 95. 112.
Tolosa. Tolosa, M. I. Kale Nagusia, 7. 943 67 06 48.

IRRATIA

Goiko Irratia (107 FM)
13:00. *Kornerra* magazina. Helbidea: kornerra@hotmail.com
Zozketa. *Kornerra* saiokoei Abesbatza Lehiaketako 20 sarrera bikoitza jarri dituzte zozketan. Gaur, 14:00etan, emango dute saridunen izenen berri irratisaioan. Oraindik badago aukera parte hartzeko; bi era daude horretarako: batetik, 652 70 88 50 telefono zenbakira mezu bat bidaliz, edo, bestetik, kornerra@hotmail.com eta goikoirratia@hotmail.com helbideetara idatziz.

▶ HITZA ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanetan eta intzientz erantzukizunik.

AGURRAK ▶



ZORIONAK, IÑIGO

Gu zuekin batera beti aurrera ebera etorri arte. Eutsi goiari.



Hesi artean aurkitzen zara eraman zintuztelako urtebetetze eguna duzu baina ezin ospatu bapo. beti gogoan eduki zazu maite zaitugula asko. bihotz-bihotzez mila zorion ta urte askotarako. Belarriak 29 aldiz astinduz muxu erraldoi bat. Etxekoan partez.

Iñigo (Villabona)

HITZA, zorion agurren tartea
HITZAren egoitzetara: Araba etorbidea, 5 beheko TOLOSA
Udaletxeko bulegoa LEITZA
Mesedez, argazkia bi egun lehenago ekarri. Mila esker!



URTE ASKOAN
Maddi Bengoetxea Jaular.
Gaur 3 urte. Zorionak familiaren partetik.



URTE ASKOAN
Iraia Otxoa (Anoeta). Gaur 4 urte. Zorionak ebekoen partetik. Muxu handi bat.